



<b>Izenburua</b>	Esku-hartzeko hainbat ildo, hurbilketa sistemikotik begiratuta
<b>Egilea</b>	Pello Jauregi
<b>Data</b>	2010/04/21

# aurkibidea

---

aurkibidea.....	2
1. Zer da ikuspegi sistemikoa?.....	3
2. Harreman sistemikoen aldaketa.....	5
3. Hautematearen eta jokabidearen arteko oreka.....	7
4. Zeintzuk dira nerabezaroaren ezaugarri nagusiak?.....	8
5. Hizkuntza esku-hartzerako iradokizun batzuk.....	10
5. Hizkuntza esku-hartzerako iradokizun batzuk .....	09

## 1. Zer da ikuspegi sistemikoa?

---

Mugimendu eta egonkortasun fenomenoaren artean dagoen harreman osagarria adierazteko modu bat izan liteke ikuspegi sistemikoa. Sistema baten alderdi dinamikoa eta estatikoa adierazten dizkigute mugimenduak eta egonkortasunak hurrenez hurren. Kontzeptuok bata bestearen ondoren aipatu izanak, hala ere, ez liguke pentsarazi beharko entitate autonomoak direnik. Euren arteko lokarria ezin da eten. Nola txanpon batek bi alde dituen, hala elkarrekintza fenomenoak ere bi alderdi banaezin hauek ditu. Giza eta gizarte fenomenoak egoki uler daitezke bi mutur hauen arteko dantza etengabearen ondorioz.

Sistema kontzeptuak, lehen batean bederen, ordenaren usaia dakarkigu gogora. Eta horri lotuta, beharbada, beste honako ideia hauek ere badatozkigu: egonkortasuna, kontrola, aurreikusgarritasuna, egitura, araua eta antzerakoak. Eta hala izan ohi da egiari zor, sistema batean zoriz eta arbitrarioki gauza gutxi gertatzen baita. Gertaerek, sistema baten bueltan ematen direnean, logika bat izan ohi dute atzean. "Lege" batzuk aurki ditzakegu bertan. Horri eskerrak, jakin badakigu nola jokatu behar dugun ingurune bakoitzean. Hitzez ere azal dezakegu gauzak zergatik gertatu diren sekuentzia jakin batean.

Jokaerak, sistema baten barruan, elkar uztartuta ageri dira. Teorian balizko aukera ugari egon litezke harremana modu batez ala bestez bideratzeko, baina jarduketan benetan haietako batzuk besterik ez dira gauzatzen. Jokabide batzuk lehenesten dituzte kideek euren jokaeraz, eta bide horiek jorratzeaz batera beste batzuk ezinbestean alboratzen dituzte. Aukeraketa horretatik datorkio, hain zuzen, sistema bati bere jarduera-logika, edo nahi bada, bere funtzionamenduaren arrazionaltasuna.

Aukeraketa horiek behin eta berriro eguneratzen dira elkarrekintza bakoitza gertatzeaz batera. "Jarduera-logikaren" eragina arian-arian areagotzen da ondorioz. Hasierako jokaera tentagarriak (sistema bere oreka edo izaera bilatzen ari zeneko garaietako jokaerak) finkatuta ageri dira denborak aurrera egin ahala. Hemendik eskuratzen ditu sistema batek koherentzia, egonkortasuna, egitura eta "nortasuna". Esan genezake sistemak lortu duela bere baitan ixtea, lortu baitu kiribil edo bukle egonkor bat osatzea. Kiribil egonkor bat gupil zoro baten modukoa da, hau da: muturrek elkar elikatuz galera dute energiaren jarioa euren eremutik ateratzea. Aurrerantzean, lehentasunezko jokabideek (egitura osatzen duten ohiturazko jokabideek alegia) "zurrupatu" egiten dituzte beren aldera etengabe berritzen ari diren elkarrekintzak, eta era horretan zurrupatutako elkarrekintza berri bakoitzak sakonagotzen eta areagotzen du ohiturazko jokaeren zurrupatzeko ahalmena. Zenbat eta gehiago jokatu sistema baten logikan, gero eta zailago egiten da haren erakarmen indarretik alde egitea, geure jokaera bakoitzarekin handitzen ari baikara hark gu harrapatzeko duen ahalmena. "Zurrupatu" edo "harrapatu" hitzei ez diegu hemen inolako adiera ezkorrik ematen. Izan ere, ohituren "zurrupatze" indarra oso era atseginean bizi baitugu gehienetan. Bere eragin pean elkarrekintza erraz doa, ez da burua hautsi behar, erosotasuna, naturaltasuna eta jariotasuna nagusitzen dira. Hau guztia, normalean, atseginarekin iturri izan ohi da.

Jokaera gehienak, sistema batean, elkarri lotuta daude, kateatuta bezala. Denen arteko uztardura bereziak, hain zuzen ere, era bateko edo besteko tankera ematen dio sistema bati. Baina harreman sistemiko horiek ez dira oroberdinak. Edozein egituretan bezala, hierarkiak ageri dira harreman sistemikoetan ere. Garrantzi gehiagoko eta gutxiagoko jokaerak daude. Egituren egonkortasunari eusteko duen egitekoak ematen dio jokaera bati sisteman duen garrantziaren neurria. Egonkortasuna auzitan jartzen duten jokaerak hil ala bizikoak dira sistema batentzat. Haien muina eta bihotza. Ez

dira harreman sistemiko guztiak halakoxeak. Jokaera batzuk arazorik gabe bazter daitezke sistemaren egitura funtsean ukitu gabe.

Sistemek badute joerarik, bai eta beharrik ere, iraungo badute, beren burua babesteko. Eta hori egiten dute oharkabean zein ohartuki. Babesa mekanismo batzuek eusten diote sistemaren ordenari. Haietako batzuek kanpoko eraginekiko harremana erregulatzen dute, sistemarentzat ona edo neutroa behinik behin dena onartuz eta kaltegarri izan daitekeena baztertuz. Hori ezin da beti erdietsi, ordea, eta batzuetan, sistemaren orekarako kaltegarriak diren eraginak barneratzea ezin izan denean galerazi, sistemaren egokimen mekanismo guztiak berriro pizten dira elkarrekintza beste modu batez antolatzeke. Honelakoek, askotan, aldaketa kualitatiboak eragiten dituzte sistemaren egiturari.

Aldaketa, fenomeno bezala, beti dago hortxe aurrean sistema baten funtzionamenduan. Barne orekari eusteko joera erne bezala du beti, kanpotik datorrenari arretatsu begiratzen diolarik. Batzuetan erraz egokitzen zaio kanpoko eragin multzoari, are errazago kanpoko horiek funtsean sistemaren biziraupena auzitan jartzen ez dutenean. Halakoetan kanpokoari arazorik gabe egokitzen zaio sistema, barneko antolaketa funtsean aldatu behar ez duelako. Baina, bestetuetan, kanpoko faktoreen eraginak hainbesteraino ukitu, hunkitu eta aztoratu egiten ditu funtsezko jokaerak, non sistemak ezin baitu areago aurrera egin barne antolaketa oso nabarmen eta errotik aldatu gabe. Hori lortzean, sistemak aurrerako aldaketa kualitatiboa bizi du. Baina denetan "heriotza" da, hots, sistemaren desagertzea, aldaketarik handiena, erabatekoa. Deseuztatu egiten dira kanpotik datozkien eraginetara egokitzen ez diren sistemak, eragin horiek egituraren funtsezko alderdiak ukitzen dituztelarik.

Etengabea da barnearen eta kanpoaren arteko dantza, elkarreragina eta elkarren beharra. Sistema batek bere burua itxi behar du, bai eta babestu ere, bere barne orekari, ordenari eta izaerari eutsiko badio, baina, nahita ere, ezin izango luke kanpoko eragiletzatik guztiz isolatu. Ezinbesteko du sistema batek barnearen eta kanpoaren arteko aldi bereko dantza osagarriari egokitzea.

Elkarrekintzaren mugimendu asko ezagunak eta finkatuak dira, eta halakoetan harreman sistemikoez hitz egiten dugu. Baina mugimenduaren beste ezaugarri bat, eta hau ere funtsezkoa, dira ezustek, mugimendu ez-sistemikoak eta ez-logikoak. Mugimendu hauek sistemaren logikatik harago jokatzeko dute. Auzitan jar dezakete sistemaren oreka. Erronka egiten diote edonola ere sistemak arrotzari egokitzeko duen gaitasunari.

Aldaketa eta egonkortasuna, biak dira elkarrekintzaren oinarriko mugimenduak, eta horregatik, sistema ororen barne dinamikaren aldi osagarritzat ikusi beharko genituzke.

Sistema txikiak sistema konplexuagoen zati dira. Eta maila ezberdineko sistemen artean ere harreman sistemikoak sortzen dira. Matriuskak bezala, sistema xumeak sistema korapilatsuen osagaiak izan ohi dira.

Gogo-muga bezala lagunarte bat hartuko bagenu, honako azpi-sistema hauek identifika genitzake: hizkuntza-harremanen sistema, zirrara-harremanen sistema, botere-harremanen sistema. Hiru azpi-sistema horiek, ordea, isolaturik ez-baina elkarri eragiten diote, eta elkar uztartuz, bakarra eta osoa den lagunarteko harremanen sistema osatzen dute. Era berean, lagunarteak, sistemak bezala, zabalagoak diren zenbait gizarte-sistemaren zati dira.

## 2. Harreman sistemikoen aldaketa

---

Mugimenduaren eta egonkortasunaren arteko dinamikari gagozkiolarik, esan genezake lau norabide har ditzaketela harreman sistemikoek:


- 1- Aldaketarik ez / egonkortasun osoa: taldeak ez dio inongo egoera berriari aurre egin beharrik. Edota egoera berriak agertuta ere, horiek saihesteko arazorik ez dute batere.
  
- 2- Aldaketa leuna / egonkortasun handia: taldea egoera berri batera egokitzen da (hizkuntza batez egin ohi duen talde batek beste hizkuntza batez diharduenean, esaterako), baina egoera laburra da, gutxi irauten du, eta taldeak aukera du berriz ere bere lehengo ohituretara itzultzeko. Taldeak ez du bide nagusia galdu, nahiz eta oztopo bati aurre egiteko unetxo batez saihesbideren bat hartu behar izan duen. Taldearen harreman sistemikoek beren horretan jarraitzen dute.
  
- 3- Aldaketa sakona / egonkortasun gutxi: taldeak egoera berrira egokitu behar du, baina denbora luze batez eta apenas ihesbiderik gabe, halako moldez non harreman sistemikoak ukituak diren, eta bestelako jokaerez ordezkatuak izan behar duten ezinbestean. Aurreko jokaera moldeek egoera berrira egokitzeko baliogarritasuna galdu dutenez, berri diren jokaerak erabili behar ditu taldeak, baldin halako testuinguru batean aurrera egingo badu. Jokaera berriek harreman sistemiko berriak eraikiko dituzte, eta denborak aurrera egin ahala, eta etengabeko errepikapenaz, harreman horiek ohiturazkoak izateraino iritsiko dira.
  
- 4- Deuseztapena / batere egonkortasunik ez: hala gertatzen da talde batek egoera berrira egokitzea beste irtenbiderik izan ez eta, hala ere, berori lortzea ezinezkoa egiten zaionean. Inguru horretan luze iraun behar baldin badu, sistemak hondoa jota desegingo da. Eta deuseztapen horrek eragindako energiaren askatzeak balioko du beste sistema batzuen hornitzaile izateko.

Nondik sortzen dira, ordea, aldaketarako indarrak? Galdera honi erantzuteko, bikote bat har genezake eredu bezala. Modurik errazena berak ematen baitu harreman sistemikoen nolakoa irudikatzen. Bikotea edota biko harremanak gizarte sistemen oinarritzko unitateak direla deritzogu. Eta alderaketa

bat egite aldera esango genuke biko harremanak zelulen parekoak direla, eta hauek gorputzaren eraikun-tzan eta antolamenduan duten oinarrizko zeregina dutela era berean biko harremanek gizarte sistemetan.

Zeintzuk izango lirateke bikote bat aztertzerakoan ezaugarri sistemikorik azpimagarrienak? Guk honako hiru hauek aukeratu ditugu:

- 1- Elkarrekintza etengabearen ondorioz sorturiko harreman egituratuak (edo sistemikoak, nahi baldin bada)
- 2- Bi kidea elkarri lotuta egotea elkarrekin sorturiko harreman egituratu bidez.
- 3- Testuinguru egoki baten beharra, harreman sistemiko horiek gertatu ahal izateko.



Harreman sistemikoek kideen jokaerak egituratzearen ondorioz halako dantza zoragarria ikusi ohi dugu, non kideak aldi berean mugitzen baitira era osagarrian. Dena ondo doa orduan. Ordena ageri da. Barne-oreka esango genioke horri. Barne-oreka, ordea, funtsezkoa izan arren, ez da sistema batek bizirauteko behar duen oreka bakarra. Nolabait, inguruarekiko egiturazko egokitzapena ere behar-beharrezkoa baitu. Hori ezean, kanpoko eraginak hondora bidean jar baitezake barneko oreka hauskorra. Bi oreka mota behar dira, hortaz, sistema baten iraunkortasuna segurtatzeko: kideen arteko harreman egituratuta batetik, eta barrukoaren eta kanpoaren arteko bateragarritasuna bestetik.

Era berean, sistema baten aldaketa sakona eragin nahi dugunean, taldearen bi oinarrizko oreka horiek, edo bat bederen, desorekatu beharrean gaude. Kideen arteko harremana da horietako bat. Barrukoaren eta kanpokoaren arteko bateragarritasuna auzitan jartzea dugu bigarrena.

1- Kideen arteko harremana desorekatzea abiapuntu denean:

- 1.1. *Gizabanakoa abiapuntu ("nik edo zuk")*: kideetako batek ohiko jokabidea aldatzen du bere kidearekin harremanetan ari denean. Harremana aldatuta beste kideak ere jokaera egokitu, moldatu edo aldatu behar du ia ezinbestean. Harremana berregokitu behar dute orduan, harik eta oreka berria berreskuratu arte.
- 1.2. *Taldea abiapuntu ("guk")*: bi kideek adosten dute jokabide berria, edo nahi bada, aldaketaren norabidea. Harreman sistemikoa, honengatik edo hargatik, desatsegina da

bientzat eta hura aldatzeko beharra sumatzen dute. Badakite harremana norantza eraman nahi duten, eta hartara ahalegintzen dira.

2- Barrukoaren eta kanpokoaren arteko bateragarritasuna desorekatzea abiapuntu denean:

2.1. *“Datorkigun” egoera (“hark edo haiek”)*: kideen kontrolpetik kanpo dagoen zerbait da, hartara egokitzea baino ezin dute egin, ez dago beste erremediorik. Honako egoera hauek esaterako: “ez daki gaztelania, zer egingo dugu ba?”, “hemen ez dute onartzen legez euskaraz hitz egitea, zer egingo dugu ba?”

2.2. *“Goazkion” egoera (“hark edo haiek”)*: kideek badakite nora doazen, nahita doaz, komenientziak edo interesak bultzatzen ditu hara joateko, nahiz eta alde zuzenetik jakin bertan aurkituko duten hizkuntza-araua ohiz kanpoko izango dela. Esaterako, erdaraz hutsezko halako ikastaro batean parte hartzea delibera dezake talde batek, nahiz eta beraiek egunerokoan euskaraz jardun ohi duten.

Irtenbideetako bakoitzak bestelako grinetan hartzen du oin:

“nik edo zuk”: gizabanakoaren asertibitatean  
“guk”: taldetxoaren adostasunean  
“datorkiguna”: berezko egokitzean  
“goazkiona”: komenientzian, interesetan

Barnetik nahiz kanpotik, hortaz, abia daiteke harreman sistemikoen aldaketa. Baina gakoa, benetan, harreman sistemikoak bete-betean ukitzean datza. Eta hori bakarrik gertatzen da kideen arteko elkarrekintzak traba duenean harreman sistemikoak betiko moduan antolatuzko, eta horregatik beragatik, taldeek harremana beste modu batez bideratzeko beharra nabari-nabaria duenean.

Kideen arteko ez ohiko elkarrekintzak eta ez bestek gauza dezake harreman sistemikoen aldaketa. Saihets ezinezko jardura dugu hori. Bultzagarriak, ordea, bestelakoak izan daitezke, hori lehendik ere esana genuen, aldaketarako abiapuntuak barrutik nahiz kanpotik etor daitezkeenez gero.

### **3. Hautematearen eta jokabidearen arteko oreka**

---

Ageriko jokabideak bat etor daitezke ala ez barneko hautemateekin. Organismoak, edozein sistemak bezala, haien arteko adostasuna bilatuko du, orekarako duen berezko joerak bultzatuta. Oreka, aldiz, ez da egoera geldi eta mugiezina, dinamikoa baizik: lortu eta galdu, irten eta sartu, joan eta etorri...eta antzeko gorabeheretan ibili ohi baita.

Horregatik, organismo batean desoreka, urradura, inkoherentzia eta desordena nagusitzen denean, bestaldeko norabiderako grina berez pizten zaio taldeari, ahalik eta azkarren “osasuna”, “ongizatea”, “armonia” edo “oreka” berreskuratzeko asmoz. Eta bi dira, nagusiki, oreka berriz ekartzeko bideak:

- 1- Hautematea aldatu jokabidearen ezaugarrietara moldatuz
- 2- Jokabidea aldatu hautematearen eskakizunetara egokituz

Horrela ikusita, ateak zabalik ditugu bi norabideetan. Batetik, hautemateetan gertaturiko aldaketek jokabidea aldatzera eraman gaitzakete, baldin eta desorekak sortu digun zirrarezko aztoramenduak atalase maila jakin batetik gora egin badigu. Atalase maila asko alda daiteke organismo batetik bestera, sentikortasun bera ez baitute organismo guztiek.

Baina bestetik, atzekoz aurrera ere, esan genezake gure jokaera berri batek indarra izan dezakeela gure hautemateak aldatzeko. Jokabideak halako bizitasuna, halako iraunkortasuna, eta agian halako ezinbestekotasuna ere beharko lituzke atalase mailaren bat gaindituta hautemateen aldaketa nabarmen eragiteko. Ez litzateke erraza izango atalase maila horren puntu zehatza finkatzea organismo guztientzat.

Hautemateetan eragitea (jokabideak aldatzeko) izango genuke, beraz, esku-hartze estilo bat. Badario horri kutsu psikologikoa, gizabanakoen barneko prozesuetan eragitea xede duen aldetik.

Jokabideetan zuzenean eragitea (hautemateak aldatuz ondorioz) izango genuke bestelako esku-hartze estilo bat. Nabarmenago da honetan aurrekoan baino gehiago tankera soziologiko bat, ageriko gizarte-elkarrekintzak indartuz, oztopatuz edo bideratuz egiten duen ahalegin ohartuarengatik.

Elkarrekintzan eragiteko estilo bat ala bestea aukeratzea aldagai askoren baitan egon daitekeen erabakia da. Haietako bat litzateke, eta ez garrantzi gutxikoa gainera, gure talde-xedearen ezaugarriak nolakoak diren ezagutzea. Hortaz, nerabezaroaren ezaugarriak aintzat hartzea funtsezkoa litzateke hizkuntza esku-hartzerako irizpide batzuk finkatzeko.

#### **4. Zeintzuk dira nerabezaroaren ezaugarri nagusiak?**

---

Hazkunde-krisia du aro honek ezaugarri nagusia. Haurtzarotik heldutasunerako jauzia. Garai bateko, hots, haurtzaroko, ordena eta oreka urtu bezala egiten da eta heltzaroren oreka eta ordena berriaren bila abiatzen dira nerabeak.

Aldaketa garaia beraz. Aldaketak gainera sistema guztietan gertatzen dira: sistema fisiologikoan, zirrarezkoan, ezagutzazkoan, kideen arteko harremanetan, gizarte eskakizunetan...

Aldaketa fisiologikoen sexualitatearen bat-bateko garapena bizkortzen du, bestelako grinak, desirak eta zirrarak ekarriz berekin.

Burmuinaren garapenak eragiketa formalen loraldia ahalbideratzen du. Nerabeak gero eta gaitasun handiagoa du ondorioz gogoeta zehatzetatik harago gogoeta abstraktueta murgiltzeko. Gogo-bizitzak aberastasun ikaragarria irabazten du. Bizitzari eta errealtateari buruzko ikuspegi orokorrak ulertzeko gai bihurtzen da nerabea. Oharmena arrazionaltasunaren gailurrik handienera iristen da.

Kanpoko eraginaren akuilua gero eta gertuago sumatzen du nerabeak. Lan munduarekiko eskakizunak saihestezin bihurtzen zaizkio. Hainbat erabaki garrantzitsuak hartu behar ditu bere lan ibilbidea bideratze aldera. Etorrizuna antzeman beharra du. Norbere beharrak eta interesguneak deskubritu beharra du. Horiek guztiek estu hartzen dute nerabea, zereginak ez baitira nolana hikoak.

Kideen arteko harremanak aldatzen dira. Sexu bultzadaren eragina nabaria da harremanak bideratzeko garaian. Hari lotuta, zirraren erretzea begi-bistakoa da.



Galdera ugari aztoratzen du nerabea: nor naiz ni? zer egin nahi dut? zer izan gogo nuke? Harrapaladan eta gorabehera ikaragarrian metatzen zaizkio galderak bere buruaren jabe izateko prozesu korapilatsu horrek aurrera egiten duen neurrian. Aldi berean, helduen munduan bere buruarantz tokitxo bat egin, irabazi, aurkitu egin behar du. Norbere autonomia eraikitzearen eta munduarekiko egokitzearen arteko tentsio etengabe mugitzen da nerabea. Barrurako eta kanporako emana dago aldi berean.

Ez ditu orain erraz onartzen bere autonomia batzuetan mugatzen eta beste batzuetan zapaltzen duten larderiako jokaerak. Gurasoak eta irakasleak larderiako figura bihurtzen dira nerabe askoren begietan. Trantsizio garaia dira. Helduek ere ez dakite oso ondo nerabeak nola hartu: haurtzat? heldutzat? Helduek ere harremanetan jarduteko modua berritzea eskatzen du nerabeen aldaketak, baina ez dute heldu guztiek erraz egiten berregokitze hori. Gatazka ugari sortzen da horren inguruan. Larderiako jokaeren aurrean, gehiago ala gutxiago, aurre egiteko joera piztu egiten zaie nerabe gehieni, batzuek garbi adieraziko dute, beste batzuk isilean eta marmarrean ariko dira.

Familia eta eskola atsegin-iturria baino gehiago gatazka eremu bihurtu ohi dira. Bestelako eremuek berenganatzen dute nerabearen bihotza: lagunartea, musika, gizarte sareak, telebista, internet... Askeago sentitzen diren eta larderiako jokaera gutxiago sumatzen duten eremuetan, hain zuzen ere, mugitzen dira orain gustoen nerabeak. Hemen dira zabal-zabalik nerabeak, eta horregatik hain zuzen ere, oso-oso eraginbera agertzen zaizkigu hango eraginaren aurrean.

Bizitza soziala ikaragarri aberasten da. Gizarte mugimendutan edo erakundetan parte hartzen hasten dira baten batzuk. Jaiak, alkohola edo bestelako pizgarrien inguruan antolatzen dituzte harreman ugari. Lagunartea inoizko garrantzirik handiena du haien bizitzan. Behar-beharrezkoa dute lagunartearen bermeaz baliatzea. Ez da harrizkoa. Batetik, beren nortasuna aske adierazteko aukera ematen baitie lagunartea. Bestetik, taldean indarra aurkitzen baitute, bai eta babesa ere, helduen munduari aurre egiteko. Erronka bikoitzari heldu behar diote nerabeek; alegia, helduen mundu korapilatsuen aurrean beren tokia aurkitu, munduaren parte bihurtuz beren nortasun bereziari uko egin gabe. Doikuntza zail horretan taldeka aritzeak bakarka aritzeak baino aukera gehiago ematen die kinka larri horretan aurrera egiteko.

Gizarte arauak urratzea, edo behinik-behin kritikatzeta, hori ere beren autonomia irabaztearen prozesuaren zantzu argia da.

Hizkuntza bakarreko gizarretan nerabeek hizkera berezia egitera jo ohi dute, besteengandik bereiztuz, eta identitate nortasuna indartuz.

Hizkuntza anitzeko gizarretan, ordea, bestelako fenomenoak gertatzen dira. Hizkuntza gutxitutako nerabe eleanitzek gizarte hizkuntza nagusiari heltzeko joera erakutsi ohi dute maiz, beren berezko hizkuntza albo batean uzten dutelarik. Familiari eta eskolari, txikitako erakunde nagusiei alegia, aurre egiteko modu baten antzera ikus genezake hau guztia. Baina, seguru asko, helduen mundu errealaren parte nahi izatea (bizi duten tenkearen alderdi nagusietako bat) izango litzateke indarririk erabakiorrena gizarretan hizkuntza nagusia hartzera bultzatzeko. Ematen du honelako zerbait adierazi nahi izango luketeela: "gu ere homologarriak gara, normalak gara, besteak bezalakoak gara". Behin behar hori asetuz gero, beharbada askeago sentitzen dira nerabeak beren berezko hizkuntzak ematen dien berezitasuna onartu eta hartaz harro sentitzeko (autonomia eraikitze delarik bizi duten tenkearen beste alderdia). Haietako asko, ondoren, itzultzen dira berezko hizkuntzara. Beste batzuk galdu egiten dira bidean. Berezi, familian hizkuntza gutxituarekiko harreman natural eta maitasunezkoak bizi izan dituztenek dute berezko hizkuntzara itzultzeko aukera gehiena. Berriz, hizkuntza gutxituarekiko harreman nagusia ingurune formal samarretan bizi izan dutenek, nerabezaroaren osteratxo honen ondoren, hizkuntza nagusiaren sareetan josita gelditzen dira kasurik gehienetan.

## 5. Hizkuntza esku-hartzerako iradokizun batzuk

Bereziki ideia bat azpimarratu nahi dugu. Eta da, lagunarteen arteko elkarrintza sistemikoak bultzatzea, bat-bat elkarguneak sortuz, hizkuntza irizpidea barnebilduta. Hala, elkargune horretan lagunarte "heldu" bat izango genuke (16 urte ingurukoak esaterako) beste lagunarte "gazte" batekin (11-12 urte ingurukoak esaterako) tarteka biltzen dena hainbat kultur ekintza burutzeko, lehenengoaren ardura delarik hizkuntza irizpidea zaintzea, hots, euskaraz egitea. Egin kontu ez garela hizketan ari lagunarte batekin diharduen suspertzaile batez, baizik eta lagunarte oso bat beste lagunarte batekin osatzen duen harreman-eremuaz. Kultur ekintzaren bat ekoiztea da jarduera honek behar duen aitzakia lagunarteak elkarrekintzan ari daitezen. Honek guztiak erakunderen baten edo batzuen babesa, laguntza eta bultzada beharko lituzke.

Honetan hizkuntza irizpidea zaindu beharra funtsezkoa izanik, jardunerako argibide zehatz eta sinpleak eman beharko litzaizkieke lagunarte "helduaren" kideei. Hala, euskara hutsez aritzearen ezinbestekotasuna argi eta garbi gelditu beharko litzateke testuinguru horretan diharduten bitartean. Hala ere, lagunarte "gaztearen" kideak (batzuk edo denak) erdaraz hasiko balira, errieta edo ohartzeak ez litzukete erabiliko hizkuntza irizpidea begiratzeko. Horren orde, gazteekiko elkarrekintza (euskaraz noski) areagotuko lukete, gaztetxoek berezko egokitzapen mekanismoa biziagotzeko.

Zergatik da egingarri halako egitasmo bat? Eta zer onurak dakartza ikuspegi sistemikotik?

- Lagunartearen babesean gauzak egitea oso estimatzen dute nerabeek.
- Lagunarte "gazteentzat" gazte helduagoak eredu izan ohi dira, jokaerak-eta antzeratsu egiteko joera erakusten dutelarik.
- Lagunarte "helduentzat" honelako ardura eta erantzukina hartzeak laguntzen die heldutasun sentazioa argiago sumatzen. Haiengan erakutsitako konfiantzak indartzen du beren autoestima. Nerabeek eskertzen dituzte helduen konfiantza erakustaldi hauek.
- Joan-etorriko onurak jasotzen dituzte bi taldeek. Gazteek helduen jokaerak eredu hartzen dituztelako. Eta helduek gazteen eredu izatearen erantzukizuna gain hartzerakoan beren heldutasuna baieztatzen dutelako.
- Talde baten zein bestearen harreman sistemikoak bete-betean dira euskararen eraginaren pean.
- Hierarkia gutxiko eremuan emango lirateke harreman sistemikoak, horrek dakarren bihotzaren zabaltzearekin, batzuk eta besteak euskararen eraginarekiko ohi baino eraginberago izan daitezkeelarik.
- Hizkuntza irizpidearen zaintzea jokabideetan oinarrituta egiten da, eta ez hautemateen eragiketean ibilita. Hala bazterten dira nerabeek hain gorrotagarri eta gehienetan emaitzik gabekoak diren larderiak, ohartze, errieta egite edota kontu hartze jarduerak.

Funtsezkoa da, era berean, kultur kontsumoak nerabezeroan hartzen duen garrantzia. Hor sartzen da telebista, musika, literatura, zinema edo interneta. Honen bueltan ere koka genitzake teknologia berriek bultzatu dituzten harreman-birtualak. Hauek guztiak dira nerabeentzat mundurako leiho erakargarriak. Bertan murgiltzen dira jakin-min asegaitez. Gurean behintzat ia erdararen monopolio dira eremu hauek. Hemen ia dena dugu egiteko.

Etxearen eta eskolaren protagonismoa jada ez da lehen bezain handia. Hala eta guztiz ere, lagundu egin dezakete. Bi jokabide goraiatu nahi ditugu:

- 1) Nerabeak entzutea eta aintzat hartzea, helduen tratamendua emanez
- 2) Hizkuntza koherentzia erakustea.

Hain da handia nerabeek barrenean duten zurrunbiloa, bihotza zabaltzeko prest baitaude pertsona ulerkor eta zabalaren ukitua sumatzen dutenean. Ez da gatazka ezinbesteko harreman bakarra nerabeekin. Elkarrizketa zintzoa ere nagusi daiteke, baina helduek nerabea heldu antzera tratatzeko prestutasuna erakutsi beharko luke, hots, begirunea, horizontaltasuna, entzuteko eta ulertzeko nahia, bestearen erabaiak onartzeko grina. Harreman hori euskara jatorrean ematen denean, hizkuntza gutxituarekiko lokarri sendo-atsegin-sakonak eraikitzen dira. Balio beza honek gurasoentzat bezala irakasleentzat ere.

Gurasoentzat hauxe da benetako ordua, hizkuntzazko jokaerari dagokionez. Gurasoen hizkuntza koherentzia ezaz jabetzen dira orain inoiz baino argiago nerabeak eta ez dute erraz onartuko moral bikoitzik. Hizkuntzarekiko moral bikoitzak aupada handia emango dio nerabeari hizkuntza nagusiarantz hel-tzeko. Aitzitik, hizkuntza koherentzia erakutsi ohi duten gurasoek eredu sendo, erreal eta benetakoa ematen diote heldu izan nahian dabilen nerabe saiatuari.

Udaltop lan-topaketa batzuk izan nahi dute. Helburu hori lortzen laguntzeko, ponentziak eskura jarri dira topaketak egin aurretik, nahikoa denbora izan dezan teknikari bakoitzak irakurtzeko, lantzeko eta hizlariari egingo lizkiokeen galderak prestatzeko. Jardunaldietan bertan, jadanik irakurriak egongo diren hitzaldiei adina tarte eman nahi zaie elkarrizketarako eta hausnarketarako tarteei.

Idatzi hemen zure galdera (ez ahaztu web gunetik bideratu behar duzula).

Galdera:

Azalpena:

